

ETAk hiltzen jarraitzen duen bitartean EAJk ez duela EHrekin itunik nahi dio Arzalluzek

EH ez dela «ETAren konplize» dio, baina itunik hautsiko dituztela iragarri du

Erredakzioa / Donostia

Azken erabakia udalen esku dagoela onartu arren, Xabier Arzalluz EBBko presidentea atzo adierazi zuenez, EAJk EHrekin dituen udal itunik eten egingo dituzte ETAk giza eskubideak errespetatu gabe jarraitzen duen heinean.


ARZALLUZEK ez zion aterik itxi EHrekin elkarrizketan jarraitzeari, eta «hitz egin nahi ez duten bakarrak» PPkoak direla gogoratu zuen; hala ere, EHrekin politika bateratu bat egitea ezinezkotzat jo zuen «ETAk hiltzen eta bahitzen» jarraitu bitartean.

Arzalluzek garbi utzi nahi izan zuen EH ez duela ETAren «konplize» juzgaten, baina iritzi publikoak ezker abertzalea ETArekin lotzen duenez, eta «atentatuen gaitzespen sendoagoak» eskatzen zaizkionez, «elkarlanerako giro egokirik» ez dela sortzen nabarmendu zuen.

Dena den, «udalak erakunde autonomoak» izanik, azken hitza beraiek dutela gogoratu zuen Arzalluzek; hala ere, «oraindik EAJren eta EHren arteko itunik mantentzen diren udaletan» zurrerik elkar lanerako joera hau hautsi egingo dela adierazi zuen.

Aznarri erantzuna

Jose Maria Aznar Espainiako presidentea EAJ eta Ibarretxe lehendakariari emandako *aholkuen* ildotik, bestalde, Arzalluzek EAeko Gobernuari Ibarretxeri dagokiola adierazi



Xabier Arzalluz EBBko presidentea, prentsaurreko batean.

zuen, eta Aznarrek harengan inolako aginpiderik ez duela azpimarratu zuen.

Arzalluzek garbi du Aznarren hitzak «kalumniak» direla, baina horregatik auzitara eramateko aukeraren aurrean ezkor azaldu zen EBBko presidentea, bere ustez «horrelako arazoengatik Gobernu presidentea epaitzen hausartuko den epailerik ez baitago Espainian».

Era berean, Arzalluzek, Felipe Gonzalezekin izandako bilerari garrantzia kendu nahi izan zion, «Moncloan PSOE urruntzen ari zaiela pentsa dezaketen arren» ez baita egia EAJk eta PSOEek EAEn akordio bat lortzeko asmoz egindako elkarrizketa izan zenik.

EAJren 'soberako gantza' aipatzean ez zela kritikoei buruz ari esan du

IGANDEAN eginiko adierazpenetan EAJren «soberako gantza» esan zuenean, alderdiko kritikoei buruz ez zela ari garbi utzi nahi izan zuen atzo Xabier Arzalluzek.

«EAJren barne, PSOEen *guerristak* edo EHn *Aralarko ildo*a bezalako sektore kritiko antolatutako izan ez arren» alderdi jeltzalearen barruan jende ezberdina badela garbi dagoela adierazi zuen EBBko presidentea, eta horrelako aniztasuna izatea edozein

alderdientzat «altxor bat» dela gaineratu zuen.

Alderdi politiko batera botere bila gerturatu diren «oportunistak» dira Xabier Arzalluzen ustez «alderdi baten soberako gantza» osatzen dutenak. Alderdi politikoaren eguneroko ekintza eta jardueretan inoiz parte hartu ez eta «PPren eraso mediakoaren aurrean, koldarkezik edo oportunismoz» alderditik aldentzeko erabakia hartu dutenak, hain zuzen.

EAJ eta EHren itunik haustea ez da nahikoa, Javier Arenasen ustez

Erredakzioa / Donostia

JAVIER ARENAS PPko idazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, «EAJk EHrekin dituen itunik haustea ez da nahikoa».

Arenasek udal itunik hautsi arren Arzalluzek EHrekin hitz egiten jarraitzeko asmoa erakutsi izana kritikatu zuen, bere ustez «ez baita zilegi indarkeria gaitzesten ez dutenekin hitz egitea».

PPko idazkariak «Espainiako konstituzio eta Gernikako estatutuaren, eta ETA eta HBren proiektu independentistaren artean» aukera egin behar duela gogoratu zion EAJri, eta Arzalluzek Aznarren baldintzak ez onartzea deitoratu zuen.

«Aznarrek esandakoak demokrata guztiek onartuko lituzketen baldintzak» direla adierazi zuen Arenasek, eta baldintza horiek onartu ezean PP eta EAJ ez direla hitz egiten hasiko.

PSOErekin kezka

EAEko egoera konpontzeko PSOEren barruan aurkeztutako hainbeste proposamenen aurrean kezkatutako agertu zen Javier Arenas. Bere ustez, ez da normala zuzen edo zortzi iritzi ezberdin egotea alderdi baten barruan, eta «nahaste hau EAEko arazo konpontzeko kaltegarria» gerta daiteke.

Bestalde, Almunia Aznarren hitzei eginiko kritikei ere erantzun zion: «Espainiako gehiengo batek Aznar hautatu» zuela gogoratu zion Arenasek.

Aulestia: «Elkarrizketarako zailtasunak zerikusia du gure aurrekoekin izaniko transmisio faltarekin»

■ Atzo aurkeztu zuen 'Gutun amaigabea' liburuan zenbait gogoeta jasotzen ditu

Axun Erzibengoa / Donostia

BERE aitonari zuzenduriko gutun moduan idatzi du Kepa Aulestia Euskal Ezkerre (EuE) alderdiko kide zenak eta egun *Talaia* aldizkari zuzendari denak *Gutun amaigabea* liburua. Alberdania argitaletxearen Zerberri sailaren barruan kaleratu da liburu labur hori.

Duela 35 urte hildako aitona abertzaleari idatzitako gutunak ordutik hona izaniko gertaeren inguruan egiten du gogoeta. Aulestia azaldu zuenez, «egun elkarrizketarako ditugun zailtasunak zerikusia du gure aurrekoekin elkarrizketarik ez izatearekin». Gerra zibilaren ondoren abertzaleen baitako transmisioa isilean egin zela dio, eta horren ondorioz hutsune

ugari geratu zirela. Hutsune horiek asmatu egin dio. Ordukoaren eta oraingoaren artean zubi eginez egungo baloreak aurrekoengandik jasotako mezuarekin zerikusi gutxi dutela azaldu zuen.

«Liburua lekukotasun intimoa da eta ez du amaierarik, bidean galdera ugari sortzen direlako». Idazle eta ordezkaritza ugari izan ziren liburuen aurkezpenean.



Kepa Aulestia, *Gutun amaigabea* eskuetan duela, atzoko aurkezpenean.